



Adierazpen instituzionala, Euskararen Eguna

USURBILen, 2015eko azaroak 16

2015eko abenduak 3an, Euskararen Egunaren harira, Usurbilgo Udalak honakoa nabarmendu nahi du, udalerrri euskalduna eta euskararen arnagunea den heinean.

Euskara gure herriaren oinarrizko orubea da, gure hizkuntza denez, munduari begiratzeko daukagun leihoa eta mundura zabaltzeko daukagun atea baita. Euskaraz gara, eta euskaratik egiten dugu bidea, eguneroko lanean eta bizitzan.

Mendeetan zehar belaunaldiz belaunaldi gure ahorraino heldu den hizkuntzak ez du ibilbide samurra izan, eta gaur egun ere, oraindik, artaziak hurbil sumatzen dituzte euskaldun askok beraien herrietan, ofizialtasunik gabe eta euskaraz aritzeko inolako erraztasunik gabe.

Udalerrri euskaldunetan bestelakoa da egoera. Legez ofiziala da euskara, euskaraz modu naturalean aritzen gara, oraindik ere nahi baino esparru gehiagotan zailtasunak ditugun arren. Horri aurre egiteko lanean segitzea dagokigu, zenbaitek larreakoa nahi duten hizkuntza noranahikoa izan dadin benetan.

Euskara lau haizetara zabaltzeko ahalegin horretan, aintzat hartzekoa eta aitortzekoa da hiztunek, euskaldun berriek eta herri eragileek zein erakundeek egindako lana. Horien guztien euskaraz bizitzeko nahiak ekarri baikaitu honaino. Aurten, bereziki, eta hainbat erakunde publikok horrela adostuta, berariaz aitortu eta nabarmendu nahi dugu euskaldun berrien ekarpena eta ahalegina.

Gaur, beraz, 2015eko Euskararen Egunean, Usurbilgo Udalak honakoa **adierazten du**:

- Udalerrri euskaldunak dira euskararen arnaguneak, hizkuntzaren transmisioan eta balio erreferentzialean duten garrantziagatik. Euskararen gune hegemonikoak dira, eta baita eredu ere hain euskaldunak ez diren eremuentzat.

- Udalerrri euskaldunek izaera horri eutsi baldin badiote, eragile askoren ahaleginari esker eta hiztunen hautuari esker izan da. Aurten, bereziki, euskaldun berrien ekarpena aitortu eta eskertu



nahi dugu, euskara ikastearekin, udalerrri euskaldunek gure hizkuntzari eusteko dagokien alea jarri dutelako.

- Udalerrri euskaldunetako bilakaera soziolinguistikoak, hala ere, azken urteotan ezagutzak behera egin duela erakusten du, eta datu horiek kezka ikusten ditugu. Arnasguneak zaindu eta hedatu ezean, beheranzko joera areagotu egingo baita, euskararen normalizazio prozesua arriskuan jarritz.

- Horregatik, euskaldun berriei aitortza hau egiteaz gain, euskaldun berriak sortzen jarraitzeko eta horretarako bitartekoak jartzeko eta erraztasunak emateko konpromisoa hartzen dugu. Baita udalerrriaren erabateko euskalduntzean dugun ardua eta egiten dugun ekarpena aztertzekoa ere, horren inguruko hausnarketa eginez, ditugun baliabideen eta eskumenen baitan.

- Udalerrri euskalduna den heinean, Usurbilgo Udalak, honen bidez, euskaraz bizitzen segitzeko borondatea berretsi nahi du, harrotasunez, herri honen kulturari eta izaerari egin diezaiokeen ekarpen ederrenetakoa dela iritzita. Era berean, aitortu eta eskertu egin nahi du, egunero euskarari hauspoa ematen dioten herritar guztien hautua eta ekarpena eta, aurtan, bereziki, euskaldun berriena.